

Al Andalus

Islamaren hedapena

- VII. mendetik IX.era bitartean, musulmanek, erlijio islamiko berriaren izenean, inperio handia konkistatu zuten, eta Indiako Ozeanotik Ozeano Atlantikora hedatu zen inperio hura.
- Hedapen horretan, iparraldeko zerrenda estu bat izan ezik, ia Iberiar penintsula osoa konkistatu zuten, eta Al Andalus izeneko estatua fundatu zuten.
- Inperio islamikoa kalifak gobernatzen zuen, eta hainbat funtzionarioen laguntza zuen horretarako. Bi dinastia izan ziren agintean inperioan: omeiatarren dinastia, Damaskotik, eta abbastarren dinastia, Bagdadetik.

Al Andalusen bilakaera

- Musulmanek azkar konkistatu zuten Hispania (711-718), noble bisigodoen arteko liskarrez baliatu baitziren, eta kapitulazio-itunak sinatu baitzituzten haiekin.
- Damaskoren mendeko emirerri izan zen Al Andalus (718-756), eta Kordoban ezarri zuen hiriburua. Omeiatarren dinastiako Abd ar Rahman I.a bereizi egin zen inperiotik, eta emirerri independentea osatu zuen (756-929).
- Damaskoko kalifaren erlijio-aginpidetik askatu zen Abd ar Rahman III.a, eta Kordobako Kaliferria (929-1031) eratu zuen. Huraxe izan zen Al Andalusen goren unea.
- Taifa erresumetan zatitzean (1031-1248), ahuldu egin zen Al Andalus, eta penintsulako iparraldeko erresumek konkistatu zuten ia erabat. Granadako nasri erresumak soilik iraun zuen (1248-1492).

Zibilizazio aberatsa

- Al Andalusen, izugarria izan zen nekazaritzaren garapena, Ekialdetik ekarritako labore berriak lantzen hasi baitziren eta ureztatze-sistemak hobetu eta areagotu baitziren.
- Nekazaritzaren oparotasunak bultzatuta, gora egin zuen biztanleria-dentsitateak, merkataritza garatu zen, eta hiri berriak sortu ziren.
- Hiriek izugarri egin zuten aurrera, artisautzako eta merkataritzako jardueretan oinarritutako dinamismo ekonomikoari esker.

Zientzia, kultura eta artea

- Europako kulturagune garrantzitsuenetarikoa izan zen Al Andalus Erdi Aroan, zientziaren eta arteen garapenari eta hezkuntzari esker.
- Al Andalusko eraikinen handitasunari eta apainduren aberastasunari esker, Erdi Aroko mundu musulmanaren erdigunean kokatzen da Al Andalusko arkitektura.